

“Mugigarritasun jasangarria, elkarri konektatuta dagoena, multimodala eta gure bezeroentzat segurua dena zuzentzeko prest gaude”.



Sortu ginenetik, duela 100 urte baino gehiago, Jasangarritasuna izan da gure garapenaren ardatzetako bat eta, hain zuzen ere, mugigarritasun jasangarriko eta hiri mugigarritasuneko irtenbideetan nazioarteko liderretako bat bihurtu gara.

Abangoardia teknologikoan garraio kolektiboko sistema integralak eta mugigarritasun jasangarriari, elkarri konektatutakoari, multimodalari eta gure bezeroentzako segurua denari dagokienez balio erantsi handikoak eskaintzen ditugu. Gure jarduera 50 merkatu baino gehiagotan garatzen dugu eta orain arte 20.000 autobus baino gehiago entregatu eta tren arloko 200 proiektu baino gehiago gauzatu izanak ematen digun eskarmentua dugu.

Jasangarritasuneko Politikan jasota dugun moduan, CAF Taldearen helburu nagusia da gure misioaren garapena interes-taldeen aurreikuspenak eta beharrak asebetetzearekin modu orekatuan bateratzea epe luzera begira eta modu jasangarrian balioa sortzeko. Legezko betebeharrak beteta ez ezik, gai honekin lotutako jardunbide onenak ere bultzatuta egiten dugu hori guztia.

Gure historian zehar, eragin positiboa izan dugu gobernu korporatiboarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako gaitan gure lanak egiteko garaian zein gure produktu eta zerbitzuak garatzeko garaian. Jasangarritasunarekiko gure konpromisoak kanpoko ekimenekiko atxikipenen eta akordio publikoen bidez formalizatu ditugu eta, hala, pixkanaka, emaitza hobekiak lortu eta gure gardentasuna areagotu dugu.

Jasangarritasuna, Hazkundera eta Errentagarritasuna dira 2021-2022ko gure Kudeaketa Planaren hiru erronka estrategikoak eta ekimen eta helburu espezifikoak biltzen ditu lehenengo horrek. Jasangarritasun Planean bildutako jardueren baitan, Materialitate Matriza izanekoa eguneratu dugu, gai esanguratsuak hiru esparruren inguruan identifikatuta: ingurumena, gizartea eta gobernu korporatiboa (ESG).

Materialitate Matriz horretatik abiatuta, gure lehen “ESG Equity Story” izenekoak prestatu dugu. Bertan laburbildu ditugu hauek: CAFerako zer eragin duen Jasangarritasunak, gobernantza, lorpen nagusiak eta etorkizunera begirako gure konpromisoak.

2021-2022 aldirako konpromisoek, besteak beste, SBTi (Science Based Targets Initiative) eta Race to Zero-ako, CDP (Carbon Disclosure Project) lehen neurketarako edo Scope 1, 2 eta 3ekin egindako CO2 isurpenen lehen neurketarako atxikipena jasotzen dute. Gainera, Jasangarritasuneko adierazleekin lotutako hobekuntza-helburuak ezarri ditugu eta horien artean daude ESG kalifikazioko indize nagusiak. Gure asmoa da CAF sektoreko batezbestekoaren gainetik kokatzea.

Webgune korporatiboko (www.caf.net) Jasangarritasuneko atal berrian eskuragarri duzue gure “ESG Equity Story”. Toki horretan bertan jarraituko dugu gai honekin lotuta izandako lorpenen berri ematen.

CAF Taldean Jasangarritasunarekin konprometituta jarraitzen dugu eta mugigarritasun jasangarriaren etorkizuna zuzentzeko prest gaude.

Adeitasunez,



Andres Arizkorreta

Presidentea